

Mirene Iraola eta Jon Mugica dira “Gidabaimena euskaraz” egitasmoko sarituak, 2022 urtean gidabaimena euskaraz prestatu eta atera izana aitortuz

“Gidabaimena euskaraz” egitasmoak Buruntzaldeko herritarrei gidabaimena euskaraz ateratzeko bultzada ematea du helburu; izan ere, gaur egun gazte gehienek D ereduari ikasiagatik, oraindik ere gehienek gaztelaniaren aldeko hautua egiten dute esparru honetan.

Pasa den ostiralean egin zen zozketa 2022an zehar gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz egin eta gainditu zuten pertsona guztien artean. Urtean zehar gidabaimenaren atal teorikoa euskaraz prestatu eta gainditzeko Buruntzaldeko herritarrek zozketan parte hartu eta sarituak izateko aukera dute. Atal teorikoa prestatzeko egindako gastua berreskura dezakete hala, 400 € gehienera.

Andoaingo 2 pertsona sarituak **Mirene Iraola Trecu** eta **Jon Mugica Manso** izan dira, eta errekonozimendua jaso dute Txitxu Ruiz Euskara zinegotziaren eskutik. Ruizek “gazte andoaindarrek euskaraz trebatzeko egindako apustua eta ahalegina” azpimarratu du. 2022an zehar 60 herritarrek eskuratu dute gidabaimena euskaraz Buruntzaldeko herri ezberdinetan. Egitasmoa 2010ean abian jarri zenetik 1.252 izan dira gidabaimena euskaraz atera dutenak.

Egitasmoa indarrean dago 2023an zehar ere, eta maiatzean indartu egingo da: 18 urte betetzen dituzten herritarrei gutun bat bidaliko zaie udaletatik gidabaimena euskaraz ateratzeko dituen abantailen berri emanez eta hala egitera animatuz. Gazte askok uda partea aprobetxatzen dute gidabaimena ateratzeko; beren ikasketak euskaraz egin dituzten gazteak dira eta ezinbestekoa da helduarorako urrats garrantzitsu eta erakargarri hori euskaraz eman ahal izatea. Hortik Udalaren inplikazioa eta autoeskolen ahalegina.

Andoain, 2023ko martxoak 10

Mirene Iraola y Jon Múgica son los premiados de la iniciativa “Gidabaimena euskaraz”, reconociendo haber preparado y sacado el carné de conducir en euskera en 2022

El proyecto “Gidabaimena euskaraz” tiene como objetivo impulsar a las personas residentes en Buruntzaldea la obtención del carné de conducir en euskera, ya que actualmente la mayoría de las y los jóvenes, pese a haber cursado sus estudios en el modelo D, siguen optando mayoritariamente por el castellano en este ámbito.

El pasado viernes se realizó el sorteo entre todas las personas que realizaron y superaron en euskera la parte teórica del carné de conducir a lo largo de 2022. Las personas vecinas de Buruntzaldea que durante el año preparan y superan en euskera la parte teórica del carné de conducir tienen la oportunidad de participar en el sorteo y ser premiados. Así, podrán recuperar el gasto realizado en la elaboración del apartado teórico hasta un máximo de 400€.

Las 2 personas premiadas en Andoain han sido **Mirene Iraola Trecu** y **Jon Múgica Manso**, y han sido reconocidas por la concejala de Euskera, Txitxu Ruiz. Ruiz ha destacado “la apuesta y el esfuerzo de las y los jóvenes andoaindarras por formarse en euskera”. A lo largo del año 2022, 60 ciudadanos se han hecho con el carné de conducir en euskera en diferentes localidades de Buruntzaldea. Desde que se puso en marcha el proyecto en 2010 han sido 1.252 los que se han sacado el carné de conducir en euskera.

El proyecto, que sigue vigente a lo largo del 2023, se verá reforzado en mayo con una carta que el Ayuntamiento remitirá a las personas que cumplan 18 años en la que les informan de las ventajas de sacarse el carné de conducir en euskera y se les animará a hacerlo. Muchos jóvenes aprovechan la época estival para sacarse el carné de conducir; son jóvenes que han cursado sus estudios en euskera y es imprescindible que este importante y atractivo paso hacia la edad adulta se pueda dar en euskera. De ahí la implicación del Ayuntamiento y el esfuerzo de las autoescuelas.

Andoain, 10 de marzo de 2023